

2024
AZAROA

ITSASOA BETE URRE

Dani Martirena
Ana Ibañez

ITSASOA BETE URRE

DANI MARTIRENA
ANA IBAÑEZ

txalaparta

Itsasoa zaintzen duen farozain batek bere largabistetatik begiratzeko gonbita egiten dio irakurleari. Orain txipiari ipurtargiak, orain marrazo gosetiak, sardina kilikariak, marmoka itsaskorrek eta... Bizargorriren galeoi hondoratua! Baina, ez hori bakarrik, oro ez baita urre. Horrela eginen du irakurleak aurrera, olatu kolpean, hala ur-azalean nola bere sakonera abisaletan itsasoak dituen sekretuak ezagutzen.

Irudi abstraktu eta iradokitzailen uberan migrazioari buruzko istorio errealista bezain gordina eskaintzen du album honek.

*"Itsasoaren izkinatik,
itsasargiaren gain-gainetik,
farozaingak ez dio itsasoari begirik
kentzen."*

AXURI BELTZA

ISBN: **978-84-10246-27-0**
ORRIALDEAK: **32**
FORMATUA: **210 x 280 mm**
PREZIOA: **17,50 €**

8 urtetik aurrera

ITSASOA

MIGRAZIOAK

GAZTEAK

- Irudi abstraktuak eta iradokitzailak lagun izanen ditu irakurleak, migrazioari buruzko istorio gordin eta poetikoa largabisten bidez deskubritzeko.
- Etiketek irrist egiten dioten artefaktu literarioa da hau, lehen zirriborroak marrazten ikasten direnetik irakurtzeari uzten zaion artean den ororentzat pentsatua eta eskainia.
- 2022. urtean Iruñeko Arte eta Diseinu eskolak proposamen artistiko onenaren aitortza eman zion liburuaren oinarri den grabatu sorta honi.



DANI MARTIRENA INDART

(Legasa, 1973)

Oroitzen du, umetan, idazlan baten agindua izaten zuela eskolako manatu guztien artean gozoena. Kazetaritza ikasketak egin zituen unibertsitatean, eta hasieran prentsa idatziari heldu bazion ere, azken urteotan EITBko albistegietan erredaktore ari da, non igurtzi poetikoari eusten dion nahikoa maiz. Literaturari erreparatuta, hainbat sari jaso ditu, idatzi izan dituelako maitasun gutunak, ipuin erotikoak eta narrazio laburrak. Haurrentzako literaturari begira, autoekoizpenaren bidetik Liburu iletsuak zigilua sortu zuen Ana Ibañezekin batera, eta argitaletxe horren labetik emanak dira *Hankaz gora du amak mundua*, *Jonek Jone izan nahi du* eta *Amonarenean kea*. *Cosimoren katiuskak* album ilustratua, berri, Pamiela argitaletxeak argitaratu zuen Etxepare Saria irabazi ostean. Orain, Ibañezen irudi lausoan gurdian, *Itsasoa bete urre* dakar, irizita urrea dela bertan kontaktzen dena eta argi utzita hamaika direla ozeanoetan erpinak, izkinak eta distirak.



ANA IBAÑEZ

(Iruña, 1972)

Zirriborrolaria, marrazkilaria, eskultorea, margolaria eta ilustratzailea. Soberakinekin eta mozketekin lan egiten du, berdin delarik puska horiek oihal izan, paper edo hari. Argitara eman dituen liburuen artean daude *Hankaz gora du amak mundua*, *Jonek Jone izan nahi du*, *Amonarenean kea* eta *Cosimoren katiuskak*, denak Dani Martirenaren testuekin. Azken album horrek Etxepare Saria jaso zuen 2018an, eta epaimahaiak ilustrazioen ekarpen ausarta nabarmendu zuen. Orain, elkarlan beretik, *Itsasoa bete urre* dute mundura emana, ohikoan legez munduaren oinazeak sendatzen laguntzeko.



txalaparta

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus
www.txalaparta.eus

